IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, TRINTXERPEKO JUBILATUEN ETXEKO TABERNAREN USTIAPEN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIO EXPLOTACIÓN DEL BAR DEL HOGAR DE JUBILADOS DE TRINTXERPE POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

I. KONTRATUAREN EDUKIA

CONTENIDO DEL CONTRATO

1. KONTRATUAREN XEDEA

1. OBJETO DEL CONTRATO

Baldintza-agiri hauen arabera gauzatuko den kontratuaren xedea: trintxerpeko jubilatuen etxeko tabernaren ustiapena esleitzea.

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la adjudicación de la explotación del bar del hogar de jubilados de trintxerpe.

Kontratu honen xedearen deskribapen zehatza baldintza teknikoen agirian jasotzen da.

La definición detallada y concreción del objeto del presente contrato se contienen en el pliego de prescripciones técnicas particulares.

Trintxerpeko jubilatuen etxeko tabernak badauzka tabernaren eta sukaldearen funtzionamendurako beharrezkoak diren tresnak, eta horien inbentarioa jasota dago baldintza tekniko berezien agiriaren I. eranskinean. Kontratista edo esleipendunari entregatzen zaizkionean dagokion akta egingo da.

El Bar del Hogar de Jubilados de Trintxerpe, tiene instalados los útiles y enseres necesarios para el normal funcionamiento del bar y cocina, los cuales constan en el inventario que se recoge en el Anexo I del pliego de prescripciones técnicas particulares. En el momento de la entrega de aquellos al/a la contratista-adjudicatario/a se levantará el acta pertinente.

Tresna eta sukaldeko tresnen lagapena bukatzean horiek ez badatoz bat inbentarioan jasotakoekin, horien arteko aldea administrazio-baldintzen agirian adierazitako behin betiko bermearekin ordainduko da.

Si al finalizar la concesión los útiles y enseres existentes no coinciden con los inventariados, de la diferencia responderá la garantía definitiva a que se refiere el presente pliego de clausulas administrativas particulares.

Esleipendunak mahaiak eta aulkiak jarri ahal izango ditu tabernaren kanpoaldean, Pasaiako Udalak ezarritako baldintzak betez. Baldintza horietan zehaztuko da zein epeetan jar daitekeen terraza eta terrazaren neurriak eta ordutegiak eta gainerako baldintzak.

Asimismo, el adjudicatario podrá instalar colocar mesas y sillas en el exterior del Bar, en las condiciones establecidas por el Ayuntamiento de Pasaia, que establecerá los periodos en los cuales podrá instalarse la terraza así como sus dimensiones, horario y resto de condiciones aplicables a la misma.

Kontratu honen izaera juridikoari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 15. artikuluarekin bat etorriz, hemen zehaztu den kontratua zerbitzu emakida-kontratu administratibo gisa dago kalifikatuta.

En lo referente al carácter jurídico del presente contrato, el contrato definido tiene la calificación de contrato administrativo de concesión de servicios, de acuerdo con el artículo 15 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera: 55410000-7

Código del objeto del contrato, según la nomenclatura CPV: 55410000-7

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

2.- EPEA

Kontratuak urtebeteko iraupena izango du eta, urtero luzatu ahal izango da beste hiru urte bete arte (4 urte guztira). Luzapena egitea kontratazio-organoak erabakiko du, eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, baldin eta horren jakinarazpena, gutxienez, kontratuaren iraupen-epea baino bi hilabete lehenago egiten bada.

2.- PLAZO

La duración del contrato será de 1 año, pudiendo ser prorrogado, anualmente hasta un periodo de 3 años más (4 años en total). La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, siempre que su preaviso se produzca al menos con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato.

3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA

Esleipendunak ordaindu beharreko hilabeteko gutxieneko kanona 1 eurokoa izango da, nahiz eta lizitatzaileek euren eskaintzetan hobetu ahal izango duten. Esleipendunak ordaindu behar duen kanonari ez zaio BEZ-a aplikagarri.

Lizitatzaileek I. Eranskinean eskainitako prezioa hobetzeko aukera izango dute; eta eskaintza horiek agiri honen 16. klausulan ezarritakoarekin bat baloratuko dira.

3.- PRESUPUESTO DEL CONTRATO

El adjudicatario deberá abonar un canon mensual mínimo de 1 euro, aunque dicho precio podrá ser mejorado por los licitadores en sus ofertas. El canon que deberá abonar el adjudicatario
del contrato no está sujeto al IVA.

Los licitadores deberán indicar en el Anexo I el precio ofertado valorándose las ofertas presentadas de conformidad con lo establecido en la cláusula 16ª del presente pliego.

3.1. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 132.121,4 eurokoa da (BEZ gabe), prozedura eta kontratazio-organoa zehazteko ondorio bakarrerako. Zenbateko hori kalkulatzeko kontratuaren iraupena izan da kontuan, izan litezkeen luzapenak ere gehituta.

3.1. VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El valor estimado del contrato se fija en 132.121,4 euros (sin IVA), a los únicos efectos de determinar el procedimiento y el órgano de contratación. Para el cálculo de dicho importe se ha tenido en cuenta la duración del contrato incluyendo las posibles prórrogas.

4.- FINANTZABIDEAK

Esleipendunak dagokion hilabeteko kanona ordaindu beharko du.

Pasaiako Udalak ez dio kontratistari preziorik ordainduko, eta kontratistak kontratuaren egikaritzetik eratorritako saldoekin finantzatuko du zerbitzua.

Nahitaezkoa izango da janari-edarien prezioak agerian jartzea. Pasaiako udalak adostuko ditu, eta esleipendunek ezingo dituzte nahierara aldatu.

Bi prezio taula egingo dira bat 65 urtetik gorakoei edo pentsiodun zein jubilatuei (Jubilatuen etxeko bazkideei eta Pasaiako gainontzeko barrutietakoei) aplikatuko zaiena eta bestea gainontzeko pertsonei. Pasaiako udalak ezarriko ditu prezio horiek.

4.- VÍAS DE FINANCIACIÓN

El adjudicatario deberá abonar el canon mensual correspondiente.

El Ayuntamiento de Pasaia no abonará ningún precio al contratista, que se financiará de los saldos derivados de la ejecución del contrato.

Será obligatorio exponer en lugar visible y claro los precios de las consumiciones. Estos precios serán acordados por el ayuntamiento de Pasaia.

Habrá dos tablas de precios, uno para los mayores de 65 años, pensionistas y/o jubilados (socias y socios del hogar del jubilado los restantes clubes de jubilados de los distritos de Pasaia) y otra tabla de precios para el resto de personas. El ayuntamiento de Pasaia establecerá dichos precios.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

2025. urteko prezioak baldintza tekniko berezien agiriaren II. eranskinean jasotzen dira. Hurrengo urteetarako prezioak ere Pasaiako Pasaiako jubilatuen etxeetako zuzendaritza guztien artean adostuko dira, eta esleipendunek ezingo dituzte nahierara aldatu. Urte bakoitzari dagozkion prezioak urteko lehenengo hiruhilekoan ezarriko dira. Esleipendunak aurreko urteko prezioak erabiliko ditu, berriak onartu artean.

Los precios correspondientes a 2025 se establecen en el Anexo II del pliego de prescripciones técnicas particulares. Los precios para años sucesivos serán acordados asimismo por el conjunto de las directivas de los hogares de jubilados/as de Pasaia y no podrán ser modificados por las personas adjudicatarias. Los precios correspondientes a cada año se establecerán en el primer trimestre de cada año. El adjudicatario deberá aplicar los precios correspondientes al año anterior hasta en tanto en cuanto no se aprueben los nuevos precios.

Baldintza tekniko berezien agiriko II. eranskinean aipatzen ez diren produktuen prezioak kontratistak proposatuko eta udalak baimendu beharko ditut

En lo que respecta a los precios de los productos no mencionados en el citado Anexo II del pliego de prescripciones técnicas particulares, los propondrá el contratista y los deberá autorizar el ayuntamiento.

5.- ORDAINTZEKO ERA

5.- FORMA DE PAGO

Esleipendunak dagokion kanona ordaindu beharko du.

El adjudicatario deberá abonar el canon correspondiente.

Pasaiako Udalak ez dio kontratistari inolako preziorik ordainduko, eta kontratista kontratuaren betearaztetik eratorritako emaitzetatik finantzatuko da.

El Ayuntamiento de Pasaia no abonará ningún precio al contratista, que se financiará de los saldos derivados de la ejecución del contrato.

Kanonaren ordainketa Udalak kontratistari adierazten dion kontu korrontean egin beharko da, hilabete bakoitzeko azken egunean. Bestela, zorpetutako zenbatekoak, Pasaiako Udalari egin beharreko ordainketa gauzatu bitartean, diruaren legezko interesak sortuko ditu.

El pago del canon deberá hacerse efectivo en la cuenta corriente que el Ayuntamiento le indique al contratista, el último día de cada mes. En caso contrario el importe adeudado devengará hasta su pago al Ayuntamiento de Pasaia el interés legal del dinero.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

6.- REVISION DE PRECIOS

Kontratistak Udalari ordaintzen dion kanona ez da berrikusiko.

El canon que abona el contratista al Ayuntamiento no podrá ser objeto de revisión.

7.- BERMEAK

7.- GARANTÍAS

Kontratuaren esleipendunak, behin betiko bermea eratu beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela ziurtatzeko. Berme hori 500 eurokoa izango da.

El adjudicatario del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas está obligado a constituir una garantía definitiva por la cuantía de 500 euros.

Bermea ezartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean adieraziko da, eta berme hori ezarriko da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 108. artikuluan ezarritako edozein bitartekoren bidez. Bermea ezarri izanaren egiaztapena bitarteko elektronikoen bidez egin daiteke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bere aldeko esleipena ez da burutuko.

El plazo para la constitución de la citada garantía será el que se señale en la notificación de la adjudicación y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la LCSP La acreditación de su constitución podrá realizarse por medios electrónicos. De no cumplirse este requisito por causas imputables al licitador, la adjudicación a su favor no surtirá efecto.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

en el artículo 111 de la LCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratatutako zerbitzua betetzerakoan, honako hauek bete beharko dira: agiri honetan zehaztutako baldintzak; baldintza orriekin batera dauden xehetasun teknikoak. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Kontratu honetatik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkko esleipendunak, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarri izan ez badira, SPKLren 214.2. artikuluan ezarritako kasu eta baldintzak betetzen badira, eta lagapenak merkatuan lehiaren eraginezko murrizketa eragiten ez badu. SPKLren 214. artikuluaren 2. ataleko b) puntuan ezarritakoa baztertu gabe; ezingo da baimendu hirugarren bati lagatzea, kontratistaren ezaugarrien aldaketa garrantzitsuak eragiten baditu, eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementutzat jo badira.

SPKLren 62.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, kontratuaren arduradun izendatzen da Ongizateko Arduradun Teknikaria.

8. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista.

La prestación del servicio contratado se llevará a cabo con sujeción a las condiciones estipuladas en este pliego, y a los detalles técnicos adjuntos a los pliegos. La ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

Los derechos y obligaciones dimanantes del presente contrato podrán ser cedidos por el adjudicatario a un tercero siempre que las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato, se cumplan los supuestos y los requisitos establecidos en el artículo 214.2 LCSP, y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado. Sin perjuicio de lo establecido en el apartado 2, letra b) del artículo 214 LCSP, no podrá autorizarse la cesión a un tercero cuando ésta suponga una alteración sustancial de las características del contratista si éstas constituyen un elemento esencial del contrato.

De conformidad con lo previsto en el artículo 62.1. de la LCSP, se designa como responsable del contrato a la Resposable Técnica de Bienestar Social.

EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK

A) HIZKUNTZA BALDINTZAK

Zerbitzu honek kudeatzen dituen jarduerak Pasaiako Udala azken urteetan euskararen normalizazioaren alde egiten ari den ahaleginera bilduko dira.

CONDICIONES ESPECIALES EJECUCIÓN

A) CONDICIONES LINGÜÍSTICAS

Las actividades gestionadas por este servicio deberán de unirse también al esfuerzo que viene realizando el Ayuntamiento de Pasaia en estos últimos años para la normalización del uso del euskera.

1. Hizkuntza gaitasuna

1. Competencia lingüística.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

• Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko.
Era berean, kontuan izango da 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan 14.2 artikuluan dioena. Izan ere araudia aplikatzen denean, oro har, bermatuko da, hizkuntza-araudia eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 7. artikuluaren c) letran eta 9.1 artikuluaren l) letran aurreikusitakoa betetzeko, erabiltzaileek euskara eta gaztelania erabiltzeko askatasuna izango dutela eta erabiltzaileek bi hizkuntza horietako edozeinetan artatuak izateko eskubidea izango dutela, norberak hobesten duenaren arabera.

• De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.8 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, los contratos administrativos suscritos por las entidades locales y demás entidades que conforman el sector público local de Euskadi incluirán las cláusulas que sean precisas para garantizar a los ciudadanos y ciudadanas el derecho a recibir las actividades o los servicios en los que medie un contrato, en condiciones lingüísticas equivalentes a las que sean exigibles a aquellas, así como el cumplimiento de la regulación de la doble oficialidad lingüística del euskera y del castellano.
Asimismo, se tomará en consideración el artículo 14.2 del DECRETO 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, mediante el cual se establece la normativa aplicable, que en su aplicación, con carácter general se garantizará, en cumplimiento de la normativa lingüística y de lo previsto en los artículos 7, letra c y 9.1, letra l de la Ley de Servicios Sociales, la libertad de las personas usuarias para utilizar el euskera y el castellano, y su derecho a ser atendidas, en función de su propia preferencia, en cualquiera de los dos idiomas.

➢

Hori horrela, Trintxerpeko jubilatuen etxeko tabernaren ustiapenerako zerbitzuko enplegatuek Pasaiako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, Udalak berak bete behar dituen baldintza berak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez. Horregatik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzan xedatutakoarekin bat, administrazioarekin eta herritarrekin harremana dutenez, Trintxerpeko jubilatuen etxeko tabernaren ustiapenerako zerbitzuko enplegatuek honako euskara maila hau izango dute:

De este modo, las personas empleadas del servicio de explotación del bar del hogar de jubilados/as de Trintxerpe deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan al Ayuntamiento de Pasaia. Por ello, cumpliendo con lo dispuesto en la Ordenanza Municipal para la Normalización del Uso del Euskera, las personas del servicio de explotación del bar del hogar de jubilados/as de Trintxerpe que tengan relación con la administración y la ciudadanía acreditarán el siguiente nivel de euskera:

• Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuari egokitutako B2 (2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea) gaitasun mailaren pareko maila ahoz.

• El nivel oral equivalente al nivel de competencia B2 (Perfil lingüístico 2 o equivalente) del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

• Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du esleipendunak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

• Previa adjudicación del contrato, el/la contratista deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa.

• Era berean, kontratuarekin hasi ondoren, pertsona horiek ordezkatzeko enpresak beste norbait izendatzen duen aldiro, izendatutakoak eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko du.

• Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, la empresa designe a otra persona para sustituir a dichos/as profesionales, la persona designada deberá acreditar la competencia lingüística requerida.

• Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko bidea hau izango da:

• La acreditación de la competencia lingüística se llevará a cabo de la siguiente manera:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonek

1. Las personas que vayan a prestar el servicio

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

eskatutako hizkuntza gaitasuna badutela ziurtatzen duen agiria aurkeztuko dute;

2. Agiririk ezean, Administrazioak erabakitako proba egingo dute. Elkarrizketa egingo dute.

- Proba horren emaitzak ez du ondoriorik izango kontratu honen zerbitzutik kanpoko esparruetan.

- Lizitatzaileen artean ez baldin badago inor Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuari egokitutako B2 (2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea) gaitasun mailaren pareko ahozko mailarik duenik, zerbitzua zuzenean ematen duen pertsonak urratsak egiten hasi beharko du baldintza-agirian aipatzen diren hizkuntza-baldintzak egoki betetzeko eta ahal den neurrian euskararen presentzia indartzeko. Horretarako, Gizarte Ekintza Sailarekin eta Euskara Sailarekin elkarlanean arituko da, eta planifikazio bat aurkeztuko du helburua nola beteko duen azaltzeko. Jarraipena egiteko urtean bi bilera egingo ditu sail horiekin.

presentarán un documento acreditativo de la competencia lingüística requerida;

2. A falta de documentación, realizarán la prueba que determine la Administración. Realizarán una entrevista.

- El resultado de dicha prueba no tendrá efectos en ámbitos ajenos a la prestación del presente contrato.

- En el caso de que entre los licitadores no exista nadie que tenga un nivel oral equivalente al nivel de competencia B2 (Perfil lingüístico 2 o equivalente) del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, la persona que preste directamente el servicio comenzará a dar pasos para el adecuado cumplimiento de las condiciones lingüísticas señaladas en el pliego técnico y para reforzar, en la medida de lo posible, la presencia del euskera. Para ello, colaborará con el Departamento de Acción Social y el Departamento de Euskera, y presentará una planificación sobre cómo va a cumplir su objetivo. Mantendrá dos reuniones anuales de seguimiento con dichos departamentos.

2. Hizkuntza paisaia

Pasaiako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzaren 8. artikuluan zehazten dira errotulaziorako nondik norakoak. Ildo beretik, Udal Ordenantzaren 8. artikulu hori indartu egiten du Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 16. 2 artikuluak, izan ere artikulu horren arabera Udalaren eskumeneko instalazioetan eta bestelako azpiegituretan barneko eta kanpoko errotuluak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, edozein euskarritan. Behar izanez gero, hizkuntza gehiagotan ere agertuko dira, euskarari lehentasuna emanez; hala ere, errotulua euskara hutsez jarri ahal izango da honako kasu hauetan:

a) Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
b) Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
c) Mezuarekin batera, piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko.
d) Euskararen sustapena helburu denean.
e) Hartzaileen ezaugarriengatik (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo komunikazioen gaiengatik euskaraz egiten diren jardueretan.

2. Paisaje lingüístico

El artículo 8 de la Ordenanza Municipal de Normalización del Uso del Euskera de Pasaia define los términos de la rotulación. En el mismo sentido, el artículo 16.2 del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi refuerza el citado art. 8 de la Ordenanza municipal, ya que establece que los rótulos interiores y exteriores de las instalaciones de competencia municipal y otras infraestructuras de las entidades locales se redactarán en ambas lenguas oficiales, cualquiera que sea su soporte. Si fuera necesario, también aparecerán en más idiomas, dando prioridad al euskera; no obstante, el rótulo podrá colocarse exclusivamente en euskera en los siguientes casos:

a) Cuando la grafía del texto sea muy similar en euskera y castellano.
b) Cuando el rótulo en euskera no dé lugar a confusión.
c) Cuando el mensaje venga acompañado de un pictograma que haga inequívoca su comprensión.
d) Cuando tenga por objeto la promoción del euskera.
e) En aquellas actividades que se realicen en euskera por las características de las personas destinatarias (edad, competencia lingüística, ámbito...) o por los temas de las comunicaciones.

3.- Harremana herritarrekin

3.- Relación con la ciudadanía

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Udalak herritarrekin betetzekoak dituen hizkuntza-baldintza berak bete beharko ditu zerbitzuak erabiltzaileekin artatzen ari denean.

a) Ahozkoari dagokionez: Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko lehen harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz izango du enplegatuak.
Segidan, herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.
b) Idatzizkoari dagokionez: enpresak sortzen dituen era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak, menuak eta janari-edarien prezioak) euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.
Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak prestatzeko Udalaren Euskara Sailaren laguntza jasoko dute.

La atención a las personas usuarias se llevará a cabo en condiciones lingüísticas idénticas a las que de hecho se exijan a la administración.

a) Relaciones verbales: de conformidad con los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento, la atención verbal inicial a la ciudadanía (atención inicial, telefónica, contestadores, presencial, megafonía, reuniones,...) se hará en euskera.
La conversación continuará en el idioma elegido por el/la ciudadano/a.
b) Relaciones escritas: las notificaciones y comunicaciones escritas por la empresa (impresos, notas, avisos, horarios, facturas, menús y precios de las consumiciones) se realizarán en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

La empresa contratada deberá garantizar que en la prestación del servicio los textos utilizados en euskera son correctos y adecuados. Para ello, los textos de amplia difusión o uso repetitivo se enviarán al Departamento de Euskera del Ayuntamiento.

4.- Harremana Administrazioarekin

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan. Kontratu honen bidez sortzen dituen idatzizko komunikazio guztiak (kontratu, faktura, txostenak, kontsultak...) eta gainerako agiriak (menuak, zerrendak, abisuak, ...) euskaraz aurkeztuko dizkio Pasaiako Udalari, eta beharrezko denean, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanda. Ahozko harremana Udaleko ordezkariekin euskaraz izango da.

4.- Relación con la administración

La empresa adjudicataria actuará de conformidad con el régimen lingüístico del Ayuntamiento en todos los cometidos objeto del contrato. Por ello, todas las comunicaciones (contratos, facturas, informes, consultas, ...) y documentos generados que correspondan a este contrato (menús, listas, avisos...) y se presenten en el Ayuntamiento de Pasaia estarán redactados en euskera, y cuando sea necesario en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. La relación verbal con los/las representantes del Ayuntamiento se desarrollará en euskera.

B) GIZARTE EDO ENPLEGU ARLOKOAK.

Oro har, kontratuaren egikaritze baldintza berezi bezala ezartzen dira honako hauek: Gizarte Segurantzari eta Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legezko xedapenak betetzea eta, bereziki, hitzarmen kolektibo aplikagarria betetzea.

B) DE TIPO SOCIAL O RELATIVAS AL EMPLEO.

Con carácter general, se establecen como condiciones especiales de ejecución del contrato el cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, y en particular el cumplimiento del convenio colectivo que resulte de aplicación.

Halaber, kontratuaren egikaritze baldintza berezi gisa ezartzen da kontratistak Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea.

Asimismo, se establece como condición especial de ejecución del contrato el cumplimiento del contratista de sus obligaciones respecto a la Hacienda Pública y a la Seguridad Social.

Era berean, kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten azpikontratista guztiek bete beharko dituzte kontratuan jasotako egikaritze baldintza berezi

Todas las condiciones especiales de ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen de la

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

guztiak.

ejecución del mismo.

9.- KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

9.- OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

El adjudicatario deberá cumplir cuantas disposiciones legales hagan referencia a aspectos laborales, de seguridad social, sanitarios y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad si hubiera algún incumplimiento.

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak ezingo ditu aldebakarrez gutxitu kontratuari atxikitako langileei eskaintza aurkezterakoan aplikagarri zaien hitzarmen kolektiboaren arabera une oro dagozkien lan baldintzak, ez eta lan-arloko oinarrizko legeriaren edozein hobekuntza ere enpresaren eta langileen ordezkaritzaren arteko akordio espliziturik izan ezean.

Durante todo el periodo de ejecución del contrato, la empresa contratista está obligada a no minorar unilateralmente las condiciones de trabajo, así como cualquier mejora sobre la legislación laboral básica aplicable que corresponda en cada momento a los trabajadores adscritos al contrato en función del convenio colectivo que resulte de aplicación al presentarse la oferta, salvo acuerdo explicito entre la empresa y la representación de los trabajadores.

Azpikontratazioen kasuan, kontratistak, orobat, zuritu beharko du, dagozkion datuak azpikontratutako enpresei eskatu eta gero, ezen enpresa horiek ere, obra gauzatzean, lan arloan eta gizarte segurantzaren arloan indarrean dauden xedapen horiek aplikatzen dituztela eta, zehazkiago, dagokion Hitzarmen Kolektiboak jasotzen dituen lan baldintzak eta lan segurtasuneko eta lan osasuneko betebehar guztiak aplikatzen dituztela.

En el caso de subcontratación, la empresa contratista, igualmente, deberá justificar, después de haber solicitado a las empresas subcontratadas los datos oportunos, que estas empresas también aplican en la ejecución del contrato las citadas disposiciones vigentes en materia laboral y de seguridad social, y más concretamente, las condiciones de trabajo del Convenio Colectivo que resulte de aplicación, así como las obligaciones en materia de seguridad y salud laboral.

Kontratistak egiaztatu beharko du kontratua gauzatzeko kontratatu dituen langileak gizarte segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela; era berean, kontratuko zerbitzu batzuk azpikontratatzen baditu, Udalari jakinaraziko dio, azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, egiaztatu duela azpikontratatutako enpresa horien langileak gizarte segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela.

El contratista deberá acreditar que los trabajadores que ocuparán para ejecutar los contratos están afiliados y dados de alta en la Seguridad Social, y notificar al Ayuntamiento de Pasaia cuando subcontraten parte de las prestaciones objeto del contrato, que han comprobado, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y alta en la Seguridad Social de los trabajadores de las empresas con las que subcontraten.

Kontratistak udalari helaraziko dizkio egiten dituen lan-kontratu guztien kopiak, kontratuaren iraupena eta langileen lanaldia edozein dela ere; era berean, gizarte segurantzako kotizazio-buletinak helaraziko dizkio (TC1 eta TC2). Buletin horiek hiru hilean behin bidaliko dira, hiruhileko natural bakoitzaren bukaeratik gehienez ere 90 eguneko epean; hala ere, komunikazioa 5 lanegunen buruan egin beharko da, Udalak hala eskatuz gero.

El contratista deberá remitir al Ayuntamiento copia de todos los contratos laborales que realice, con independencia de su duración y de si la jornada a realizar por la persona contratada es completa o parcial, así como los correspondientes boletines de cotización (TC1 y TC2) a la Seguridad Social. La comunicación de los citados boletines se realizará trimestralmente en el plazo máximo de 90 días desde la finalización de cada trimestre natural como mínimo, sin perjuicio de que la comunicación deba hacerse en el plazo máximo de 5 días hábiles desde que el Ayuntamiento así se lo requiera.

Halaber, kontratistak Udalari bidali beharko dizkio, hilero, langileen nominak ordaindu izanaren eta

Asimismo, el contratista deberá remitir al Ayuntamiento, con carácter mensual, justificantes de

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

nominetan pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga atxiki izanaren egiaztagiriak.

haber abonado las nóminas y practicado las retenciones del impuesto sobre la renta de las personas físicas en las nóminas de sus trabajadores.

Nolanahi ere, ukigabetasun-klausula bat ezartzen da Pasaiako Udalaren alde, kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak, eta oro har gizarte-, lan- eta zerga-arloko betebeharrak ez betetzeagatik Udala zigortu edo kondenatzen dutenerako.

En todo caso, se establece una clausula de indemnidad a favor del Ayuntamiento de Pasaia cuando como consecuencia del incumplimiento por el contratista de las obligaciones establecidas en esta clausula, y en general en materia socio-laboral y tributaria, el Ayuntamiento resulte sancionado o condenado.

10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

10. RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA POR LOS DAÑOS CAUSADOS A TERCEROS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sortutako kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

El contratista será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP.

Kontratistak gutxienez 150.000,00 euroko erantzunkizun zibileko aseguru bat kontratatu eta aurkeztu beharko du. Aseguru honek, kontratuaren betearazteak hirugarrengoengan sor dezakeen edozein kalterengatik erantzungo du, eta kontratista zerbitzua gauzatu bitartean edozein pertsonari, jabetzari edo zerbitzuri, bere ardurapeko langile, instalazio eta tresnek eragin diezaieketen kalte eta galeren erantzule izango da.

El contratista deberá suscribir un seguro de Responsabilidad Civil por un importe mínimo de 150.000,00€, que responda de los daños causados a terceras personas, bienes o servicios derivados de la ejecución del contrato; asimismo será responsable de los daños y perjuicios ocasionados a terceras personas, bienes o servicios por el personal a su cargo, instalaciones o instrumentos.

11.- KONTRATUA ALDATZEA

11.- MODIFICACIONES DEL CONTRATO

Kontratua aldatzeko aukera izango da, SPKLren 205. artikuluan espresuki jasotako egoerak gertatzen direnean.

El contrato podrá modificarse cuando concurran las circunstancias previstas expresamente en el art. 205 de la LCSP.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, 206. artikuluan ezartzen den bezala.

Las posibles modificaciones referidas anteriormente serán obligatorias para el contratista en los términos establecidos en el artículo 206.

12.- ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME EPEA

12.- RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA

Kontratuan jasotako zerbitzua bete eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala eta positiboa egingo da.

En el plazo máximo de 1 mes desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción.

Halaber, 2 hilabeteko epea ezartzen da, kontratuaren harrera formala egiten denetik kontatzen hasita. Epe hori izango da berme-epea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Asimismo, se establece un plazo de 2 meses, contado a partir de la recepción formal del contrato que se fija como garantía a los efectos de lo previstos en la Ley de Contratos del Sector Público y en el Reglamento General de la Ley de Contratos de la Administración Pública.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

Berme-epe horretan kontratista izango da egindako lanetan edo emandako zerbitzuetan ager daitezkeen hutsune edo akatsen erantzulea.

Durante este plazo de garantía el contratista será responsable de los defectos o vicios que puedan manifestarse en los trabajos o prestaciones realizadas.

13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK, BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

13. PENALIDADES AL CONTRATISTA POR INCUMPLIMIENTO

A. KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK EZ BETETZEA

A. INCUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, azken epea betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, Administrazioak aukeran izan dezake, kasuaren arabera, edo kontratua suntsiaraztea, edo eguneko zigorrak ezartzea proportzio honetan: kontratuaren prezio osoan dagoen 1.000 euroko kopuru bakoitzeko 2 euro egunero, BEZ gabe.

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 2 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, IVA excluido, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

Administrazioak aurreko ataletan adierazten diren ahalmen berberak izango ditu, kontratistak epe partzialak betetzen ez dituenean, edo horiek ez betetzeak epe osoa ez betetzea ekarriko duela ondorioztatzen denean.

La Administración tendrá las mismas facultades a que se refieren los apartados anteriores respecto al incumplimiento por parte del contratista de los plazos parciales, o cuando la demora en el cumplimiento de aquellos haga presumir razonablemente la imposibilidad de cumplir el plazo total.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

B. INCUMPLIMIENTO DE LA EJECUCIÓN PARCIAL DE LAS PRESTACIONES.

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu, kasuaren arabera: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por su resolución o por la imposición de una penalidad equivalente al 10 por 100 del precio total del contrato.

C. KONTRATUAREN PRESTAZIOA GAIZKI BETETZEA, EDO KONTRATUAREN KONPROMISOAK EDO EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

C. CUMPLIMIENTO DEFECTUOSO DE LA PRESTACIÓN OBJETO DEL CONTRATO O PARA EL SUPUESTO DE INCUMPLIMIENTO DE LOS COMPROMISOS O DE LAS CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO.

